



BIZITZAREN ALDE, STOP FOSILAK

Erregai fosiletatik berriztagarrietara. Trantsizio energetiko justu eta azkar baten aldeko manifestua.

Euskal Herria berotzen hasi da. **Izokinen populazioak** kaltetu dira uraren tenperatura altuen ondorioz. Pirinioetako glaziarrek beren azaleraren **%90 galdu** dute eta desagertze bidean dira. Udan Iparralden **gero eta euri gutxiago** egiten du, 2022an Nafarroan **17.000 hektarea** erre ziren baso suteetan eta pasa den udan EAEn **114 pertsona** inguruk bizia galdu zuten bero-olatuen ondorioz. Mundu mailan, **nekazal-lur produktiboak %30** egiten ahal dute behera, 500 milioi nekazari txiki suertatuz kaltetuenak. Agertoki okerrenetan, 1.200 milioi pertsona **errefuxiatu klimatikoak** izan daitezke 2050erako. 1,5º-en langa gaindituz gero, klima-aldaketa bilakatuko da **bioaniztasun galeraren kausa nagusia**.

IPCCk eta **IPBESek** kaleratutako azken txostenek ez dute zalantzarako tarterik uzten: munduak bizitza bera koloakan jarri dezakeen krisi ekologikoa bizi du. Orotara, zientzialariek zehaztutako **bederatzi muga planetarioetatik zazpi gaindituta** daude. Horien artean dagoen klima-aldaketak, gainontzeko muga planetarioengan duen efektu biderkatzaileagatik eta eragin ditzakeen ondorio katastrofikoengatik, arreta berezia merezi du.

Erregai fosilak dira klima aldaketaren erantzule nagusiak. Milioika urtez pilatuz joan diren dentsitate altuko baliabide energetikoak dira, eta, apenas 200 urteren buruan baliabide horien erdia xahutu dugu. Gaur egungo erritmoan jarraituz gero, 50 urteren buruan gelditzen den beste erdia xahutuko dugu, eta, hori gertatuz gero, atmosferaren CO₂ kontzentrazioak nabarmen gora egin eta planetak 4 °C-tik gorako beroketa biziko duela aurreikusten da.

IPCC-k esana du klima aldaketaren ondorio larrienak ekidin nahi badira lurraren beroketa 1,5 °C-en azpitik mantendu beharko litzatekeela, eta horretarako, **gutxienez erdira murriztu behar direla CO₂ isuriak 2030 urterako** eta neutraltasun klimatikoa lortu beranduenez ere 2050 urterako. Horretarako, kontsumoen murrizketaz gain, energia berriztagarrien ahalmen globala hirukoiztu eta energia-eraginkortasuna hobetzeko batz besteko tasa bikoiztu egin behar dira gaurtik 2030. urtera bitarte. Mugarri horiek funtsezkoak dira. Hori egin ezean, **hiru urte eta erdi barru** gaindituko dugu 1,5º-en langa, Hego Globalak pairatuz inpakturik larrienak. Horregatik, justua izateko, trantsizioak azkarra izan behar du. Gainera, natur kontserbazioa helburu duen **WWF** erakundeak adierazi bezala, trantsizioa azkar egitea onuragarria izango da naturarentzat, **%75ean murrizten dituelako biodibertsitatearen galera arriskuak** fosilen kontsumo altuko agertoki batekin alderatuz gero.

Baina, erregai fosilek ez dute soilik atmosfera kolonizatu eta natura suntsitzen: xahutzaileak dira, kapital handien eta herrialde gutxi batzuen eskuetan daude, inpaktu sozial handiak dituzte Hego Globalean eta garestiak dira. Gainera, osasunerako oso kaltegarriak dira: munduan **8,7 milioi** heriotza goiztiar egin ziren 2018an fosilen errekontzaren ondoriozko kutsaduragatik. Airearen kutsadurak **1.270 heriotza** eragin zituen EAEn 2022an. Fosilen isuriak minbizia bezala dira: ikusezinak bezain hilgarriak.

Horren aurrean, hainbat irtenbide eskura ditugu -nekazaritza eta basogintza birsortzaileak, ekonomia zirkularra, eraikinen birgaitzea, bero-ponpak, elektromugikortasuna,...-, eta horien guztien artean, berriztagarriak dira garrantzitsuenetakoak. Haize eta eguzki energiari esker **100 herrialde baino gehiago** fosilen inportazioak asko murriztu dituzte dagoeneko. Gainera, sistema berriztagarri elektrifikatua fosilen errekuntzan oinarritutakoa baino **askoz eraginkorragoa da**, hau da, energia kontsumoa murrizten du; aztarna **material txikiagoa** du; **merkeagoa** da; **airea garbitzen** du; energia **demokratizatze**ko aukera zabaltzen du; eta **naturarentzako** onuragarri da.

Baina, Etxe Zuriak eta hidrokarburoen lobbyak abiatu eta European eskuin muturrak bere egin duen oldarraldi fosilista betean, gure herriaren egoera oso kezagarria da. Gure energia kontsumo osoaren %80 baino gehiago erregai fosilak dira, eta Hego Euskal Herrian kontsumitzen dugun argindarraren %27a soilik ekoizten da gure lurraldean kokatutako berriztagarriekin, %6a EAEren kasuan. Bestalde, oso intentsiboak gara energia kontsumoan: **40 MWh-ko** kontsumoa dugu pertsonako eta urteko, mundu mailako batz bestekoaren bikoitza. Pertsona eta urteko CO2 isuriak tona 1 edo 2-ra jaitsi beharko genituzke, baina, Euskal Herrian 8,75 tonakoak dira, mundu mailako batz bestekoa baino %75 handiagoak.

Petro Herri batean bilakatu gara. Lemoizi ezetz esan genionetik, 50 urtez erregai fosilek hornitu dute eta hornitzen jarraitzen dute gure egunerokoa. Herri txikia izanik, bost aireportu ditugu, **milioi bat auto** EAEn bakarrik -48 gasolindegia gehiago egin dira 2020tik 2024ra- eta galdaren %93 erregai fosilekin dabilta. Gainera, kontsumitzen ditugun baliabide fosil guztiak kanpotik datozenez, Euskal Herria oso menpekota da -EAEk **%90eko kanpo menpekotasuna** du-, eta hori dela medio, oso egoera zaurgarrian gaude munduak bizi dituen ezegonkortasun eta tentsio geopolitikoaren aurrean. Enplegu duinak eta herritarren ongizatea bermatu nahi baditugu, esku hartze publikoa indartzearekin batera, energia burujabetza handiagoa behar dugu.

Testuinguru honetan, dilema ez da desazkundera ala energia berriztagarriak, biak behar ditugu, eta aldi berean gainera: energia kontsumoa murriztu eta energia berriztagarriak hedatu. Eta eskura ditugun ikerketek diotenez, teilatuak plaka fotovoltaikoz betetzea ez da nahikoa, gehienez ere gure egungo **argindar kontsumoaren zati bat** hornitu dezakegulako horrela, eta argindar beharrak handitzen joango direlako elektrifikazioan aurrera goazen heinean. Energia kontsumoa asko murriztuta ere, hiriguneak, industria edo oinarritzko ekipamendu eta zerbitzuak (ospitaleak, eskolak, trenak, tranbiak, autobusak, ...) berriztagarriekin hornitu nahi baditugu, zentral eoliko eta fotovoltaikoak ezinbestean gure paisaiaren parte bilakatu behar dira. Gainera, larrialdi klimatikoan gaude, eta, ondorioz, ezin daiteke mailakatzerik ezarri kontsumo murrizketaren, autokontsumoaren eta zentral eoliko eta fotovoltaikoen artean, dena batera egin beharra dago, bakoitzari bere helburu propioak ezarri.

Euskal Herriak “zenbat?”, “non?” eta “nola?” galderari erantzun behar die urgentziaz, auzi energetikoaren timoia behingoz hartu eta, administrazio publikoaren gidaritzapean, interes orokorrari erantzun dion trantsizio energetiko justu eta azkar bat bultzatuz. Gure kontsumoen gaineko ardura hartu eta eredu energetikoan ziaboga egiteko garaia da, ziaboga bat planetaren mugen barrura itzultzeko, ziaboga bat berotegi efektuko gasak garaiak murrizteko, ziaboga bat argindar berriztagarri oinarritutako gizarte berri baterantz bidea egiteko.

Natura, pertsonak eta Euskal Herria babesteko, manifestu hau sinatzen dugunok argi diogu: trantsizio energetiko justu eta azkar bat behar dugu!